

## GPS-a

## Musika klasikoa Lekeition

Itsas Soinua Musikaldiaren azken emanaldiak izango dira bihartik astelehena arte Andra Mari elizan

## EKAITZ AGIRRE

Donostia

Musika bezalaxe, klasikoa bihurtu da Lekeitioko Itsas Soinua Nazioarteko Musikaldia. Izen bereko ko-roaren ekimenez abiatu zen jaialdia eta dagoeneko 28. aldía du. Uz-tailaren 30ean Suffolk Conty Wynd Band bandak eman zion segida abuztuaren 3an. Bihartik astelehena bitartean izango dira jaialdiko azken lau kontzertuak, Lekeitioko Andra Mari elizan. Emanaldi guztiak 22:00etan hasi-ko dira.

Conductus Ensemble orkestraren txanda da biharkoa. Andoni Sierra da zuzendaria eta organoa Alice Mendizabalek jotzen du. Bach, Mozart eta Mendelssohn musikagileen obrak joko dituzte, eta baita Schuberten *Deutsche Messe* ere. Larunbatean Cuarteto Giocoso Juan Crisostomo Arriagaren obran oinarritutako emanaldia eskainiko du. Igandean, aldiz, Belgikako Brussels Virtuosi kamara orkestraren kontzertua izango da ikusgai eta entzungai. Besteak



Juan Crisostomo Arriagaren obra joko dute larunbatean. MARISOL RAMIREZ / A. PRESS

## ■ non zer

■ **Abuztuak 11.** Conductus Ensemble orkestra. Zuzendaria: Andoni Sierra. Organoa: Alice Mendizabal. Besteak beste, Schuberten *Deutsche Messe* joko dute.

■ **Abuztuak 12.** Cuarteto Giocoso. Juan Crisostomo Arriagaren obran oinarritutako dute emanaldia.

■ **Abuztuak 13.** Brussels Virtuosi kamara orkestra. Mozart, Puccini, Rossini eta beste hainbat lanak joko dituzte.

■ **Abuztuak 14.** Valeria Stenkina sopranoa eta Iosif Livshiz piano jotzailea. Errusiako operak eta Mozarten *Requiem* lana interpretatuko dituzte, besteak beste.

beste, Mozart, Rossini, Puccini, Dopler eta Chopin musikarien lanak joko dituzte.

**VALERIA STENKINA, BUKATZEKO.** Lekeitioko Musikaldiari Valeria Stenkina sopranoa emango dio amaiera. Martin Ibarrolaza jaialdiko antolatzailearen hitzetan, goi mailako bukaera izango du aurtengo ekitaldiak. «Iaz Euskalduna jauregian ikusi nuen, eta zoragarria izan zen. Sekulako artista da», dio Ibarrolazak. Iosif Livshiz piano jotzailea arituko da Stenkinarekin eta, besteak beste, Errusiako operak interpretatuko dituzte.

## Industrialdea hizpide 'Akatz' aldizkarian

**ALDIZKARIA** = Bermeoko *Akatz* aldizkarian industrialde bat egiteko proiektuaren aurkako ahotsak dira protagonistak oraingoan. Bermeoko Arene auzoan kokatu nahi du Udalak industrialdea, eta makina bat elkartek salatu egin dituzte asmo horiek. Horrez gain, Bizkai-ko udalerrian antolatu diren surf ikastaroen inguruko informazioa ematen du aldizkariak.

## 'Obaba' filma ikusgai Bergaran, kalean

**ZINEMA KALEAN** = Bergarako San Martin plazan, Montxo Armendariz-en *Obaba* filma ikusgai da gaur, 22:00etatik aurrera. Bernardo Atxaga idazlearen liburuan oinarritutako film honetan zinema ikasle bat Obaba herrira iristen da. Bertan, pertsonaia harrigarri batzuk ezagutuak ditu: irakaslea, Lukas eta ingeniari alemaniarra, besteak beste.

## Sorosle ikastaroa DYA-k antolatuta, Donostian

**IKASTAROA** = Gipuzkoako DYA-k antolatutako Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa prest da jada. Abuztuaren 21etik irailaren 8a bitartean izango da hitzordua, Donostian. Parte hartzeko ez da aurrez ezagupenik izan behar, baina ikasle kopurua mugatua da. Beraz, lehenbailehen izena ematea komeni da. Horretarako, telefono honetara deitu: 943 46 46 22.

## HILBERRIAK

## LUIS GORROTXATEGI MIRANDA

Tentazioa eta Tantakako Maite Gorrotxategi lankidearen aita

Une latz hauetan  
bat egiten dugu  
familiaren saminarekin

Tentazioa eta Tantaka teatroa

DONOSTIA, 2006ko abuztuaren 10a

## EKITALDIK

## musika

**Aia.** Trikizio taldearekin eta Elustondo anai-arrebekin dantzaldia. Gaur, 23:30etik aurrera, Aiako jailetan.

**Arantza.** Makala Banda. Larunbatean, 00:00etan, aterpean.

**Azkoitia.** Loreto Aramendi. Larunbatean, 20:00etan, Andra Mari elizan.

**Bakio.** Itziar Montalban txistulariak eta Nerea Bizarro eta Cristina Bizarro biolin bikoteak eskainitako kontzertua. Gaur, 19:30ean, itsas-pasealekuan.

**Barrika.** Jose Luis Pardo & The Mojoworkers. Larunbatean, 23:00etan, Golfo Nortonen.

**Berastegi.** Laiotz taldea. Larunbatean, 00:00etan, herriko plazan.

**Burlata.** Morodo eta Yash' ta. Larunbatean, 21:00etan, zezen plazan.

**Deba.** La Colombina. Gaur, 20:30ean, Santa Maria elizan.

**Donostia.** Jose Manuel Azkue organo jotzailea. Gaur, 20:00etan, Koruko Andra Mariaren Basilikan.

**Donostia.** Kuraia, Deskontrol eta Su ta Gar. Larunbatean, 20:00etan, Trinitate plazan.

**Elgoibar.** Kupela taldea. Larunbatean, 23:30ean, plazan.

**Gernika-Lumo.** Iruruz taldearekin dantzaldia. Gaur, 22:00etan, Lurgorri auzoan.

**Gernika-Lumo.** Doubling Boys, Against The Rapist eta Deskontrol. Bihar, 22:30ean, Lurgorri auzoan.

**Gernika-Lumo.** Sixty Sexers. Larunbatean, 20:00etan, Astra Gaztetxean.

**Gernika-Lumo.** Eskura eta THC. Larunbatean, 22:30ean, pasealekuan.

**Hendaia.** Tamala. Gaur, 22:30ean, Kanttu ostatuan.

**Hendaia.** Oskorri eta Kukubiltxoren *Doktor Do Re Mi* ikuskizuna. Bihar, 18:30ean, herriko plazan.

**Hondarribia.** V.O.S Trio. Gaur, 22:30ean, Car-Ma pubean.

**Leizta.** Tximeleta taldea. Gaur, 00:30ean, plazan.

**Lekeitio.** Conductus Ensemble. Bihar, 22:00etan, Andra Mari elizan.

**Lekeitio.** Cuarteto Giocoso. Larunbatean, 22:00etan, Andra Mari elizan.

**Maruri-Jatabe.** Erdizka Lauetan taldea. Gaur, 20:30ean, herriko plazan.

**Oion.** La Frontera taldearen kontzertua. Larunbatean, 23:30ean, Foruen plazan.

**Ondarroa.** SK6 Mix eta Berger@Txus. Bihar, 21:00etatik aurrera, Andra Mari jailetan.

**Ondarroa.** Stierkool, Gualitxo eta Ene Bada. Larunbatean, 23:00etan, plazan.

**Plentzia.** Primita taldearen kontzertua. Larunbatean, 23:00etan, Astillero plazan.

**Sodupe.** Tapia eta Leturia. Gaur, 22:30ean, herriko plazan.

**Sodupe.** Inoren Ero Ni, Sagarroi eta Makala. Bihar, 23:00etan, herriko plazan.

**Sodupe.** Ruper Ordorika. Larunbatean, 00:00etan, plazan.

**Sunbilla.** Laiotz taldea. Bihar, arratsalde eta gauetz, plazan.

**Zarautz.** Mosaiko, Mel Team Plugs eta Delorean. Gaur, 23:00etan, Azken Portun.

**Zarautz.** Mantis eta Sorkun. Ondoren, Aritz Sound System. Bihar, 22:30ean, Azken Portun.

**Zumaia.** Mikel Urdangarinen emanaldia. Bihar, 23:00etan, E. Gurutxaga plazan.

## antzerkia

**Donostia.** *Politicamente Incorrecto* antzezlan. Pentacion taldearen eskutik. Gaur, 20:00etan; bihar eta larunbatean, 20:00etan eta 22:45ean; eta igandean 20:00etan, Antzoki Zaharrean.

**Gernika-Lumo.** *Una visita inesperada*, Txalo taldearen eskutik. Larunbatean, 22:30ean, Lizeo antzokian.

## DANTZA

**Bermeo.** Nazioarteko XX. Folklore Jaialdia. Xirandola, Aires Dandratx eta Alkarkartasuna dantza taldea. Larunbatean, 22:00etan, Arta pilotalekuan.

## BERTSOLARITZA

**Gernika-Lumo.** Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Oihane Enbeita. Bihar, 21:00etan, Lurgorri auzoan.

**Muxika.** Xabier Amuriza eta Miren Amuriza. Bihar, 13:00etan, Maumen.

**Zarautz.** Jon Maia, Amets Arzallus, Aritz Aranburu, Andoni Egaña eta Sustrai Colina. Larunbatean, 22:30ean, Azken Portun.

**Zumaia.** Jokin Sorozabalen eta Sustrai Colinaren balkoitik balkoirako bertso-aiola. Bihar, eguerdian, San Juan iturrin.

**Zumaia.** Anjel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso. Bihar, egun osoz, Oikian.

## HITZALDIK

**Donostia.** *Astrologia, ¿Genética o Karma?* Hizlaria: Miguel Angel Qirón. Bihar, 12:00etan, Miramar jauregian.

**Donostia.** *Brujas vascas*, Toti Martinez Lezearen eskutik. Bihar, 19:00etan, Miramar jauregian.

## ESKELAK

Gaeko 21:00ak arte hartzen dira

(0034) 943 30 40 30

eskelak@iragarri.net